

## 2. Komunikazioa eta lankidetzak

### 2.5. Identitate digitalaren kudeaketa:

#### **2.5.3. Aztarna digitala**

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Komunikazioa eta  
lankidetzak.  
Identitate digitalaren  
kudeaketa**

# Aztarna digitala




**CRUE**

**REBIUN**

Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



## AURKIBIDEA

- Zer da eta zerk osatzen du zure aztarna digitala?
  - Sare sozialetako jarduera.
  - Bilatzaileak erabiltzea eta webguneak, blogak eta abar bisitatzea.
  - Telefono mugikorrek, tabletak eta haien aplikazioak erabiltzea.
- Zergatik zaindu zure aztarna digitala?
- Nola kudeatu zure aztarna digitala?
- Gehiago jakiteko...

# ZER DA ETA ZERK OSATZEN DU ZURE AZTARNA DIGITALAK?

Gure aztarna digitala sarean nabigatzean eta elkarri eragitean uzten dugun arrastoa da, eta honako esparru hauetan garatutako jardueraren bidez sortzen da:



Sare sozialetako  
interakzioak

Iruzkinak, eta  
webgune, blog,  
foro, txat eta  
abarretako  
bisitak

Gailu mugikorren  
erabilera: telefonoak,  
tabletak eta  
Whatsappa edo  
antzeko  
aplikazioak...

# SARE SOZIALETAKO JARDUERA



Sare sozialetako jarduera oro zure azterna digitalaren parte da. «**Atsegin dut**» bakoitzak, partekatzen dituzun **loturek** edo bisitek informazio asko ematen dute zuri buruz, eta zure zaletasunei, joera politikoei, interesei buruz...



## Gomendioak

Ezaba itzazu erabiltzen ez dituzun sare sozialetako kontu guztiak, eta konfiguratu aktibo dituzun kontuen pribatutasuna, zure irudi publikoa hobeki kontrolatzeko.

# BILATZAILEAK ERABILTZEA ETA WEBGUNEAK, BLOGAK... BISITATZEA

Interneteko zerbitzuak erabiltzen dituzun bakoitzean (bilatzaileak, posta elektronikoa, webguneak...), agerian uzten dituzu zure zaletasunak, ordutegiak, kokapen geografikoa eta interes pertsonalak. Doako zerbitzu horiek erabiltzean, informazio hori hirugarrenek parteka dezaketela onartzen duzu; maiz, bilatzen duzunaren emaitzak eta publizitate pertsonalizatua eskaintzearen aitzakiarekin.

## Gomendioak

- Ikas ezazu Interneten nabigatzen arrastorik utzi gabe. Badira datu pertsonalik arakatzen eta biltzen ez duten bilatzaileak: bilatzaile konfidentzialak. Adibideak: [DuckDuckGo](#), [StartPage](#) edo [YaCy](#).
- Muga ezazu **cookie**en eta antzeko zerbitzuen instalazioa, eta ezabatu nabigaziorako zure datuak (historia, cachea...).

# GAILU MUGIKORRAK ETA HAIEN APLIKAZIOAK ERABILTZEA

- Webgune batzuek zer gailutatik sartzen zaren identifikatzen dute. Nahiz eta askotan gure kontuak babesten laguntzeko egiten den, garrantzitsua da gure ohiturei buruz zer informazio jasotzen duten jakitea.
- Oro har, gailu mugikorrek aztarna digital zehatzagoa sortzen dute ordenagailu eramangarriek edo mahai gainekoek baino, beren aplikazio berariazkoen konfigurazioa dela-eta: kokapen-datuak, identifikatzaile pertsonalak...

## Gomendioak

**WhatsApp** mezuen enkriptatze-sistemak gorabehera, zure arrastoa ezabatzen duzula ziurtatzeko modurik onena «hodei»an dituzun segurtasun-kopiak ezgaitzea da, edo baita zure gailuan aplikazioa ezabatzea eta berriz instalatzea ere, datu-basea garbitzeko.





# GOGOAN IZAN...

Aztarna digitala telefono-zenbakiekin, IP helbideekin, komertzio elektronikoarekin edo online jarduerekin lotzeak **ekintza anonimoak identitate erreal bati esleitzea** ahalbidetzen du. Horregatik, funtsezkoa da uzten duzun arrasto motaz eta horrek izan ditzakeen ondorioez jabetzea.

Edozein sare sozialetan edo webgunetan saio bat hasten duzunean, erosoagoa da zure **datu pertsonalak** berriz sartu beharrik ez izatea, eta horrela denbora aurrezten duzu, gainera.

**Iragarki pertsonalizatuak** edo sareko zure bilaketan historian azaldu dituzun interesei dagozkienak jasotzen dituzu.

Baina...

Baina...

Zure aztarna digitalak **balio ekonomikodun informazioa** eskaintzen du, eta hori komertzializatu egiten dute zenbait enpresak.

**Informazio esanguratsua gal** dezakezu web-zerbitzuei uzten badiezu emaitzak zure ordeztu aukeratzeko.

## GEHIAGO JAKITEKO...

Eman begiratu bat lotura interesgarri hauei:

[Gure aztarna digitalak zaintzeko lau arrazoi](#)

[Internet Societyren «aztarna digitala»](#)

Eta ez ahaztu [ahazteko eskubidea](#) duzula!





**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center**

**Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101  
20009, Donostia, Gipuzkoa.  
T. 943574514  
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea**

**Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2  
20560, Oñati, Gipuzkoa.  
T. 943718009  
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**Biblioteka**

Dorleta, z/g.  
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.  
T. 943714157  
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa**

**Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.  
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.  
T. 943794700  
biblioteca.mgep@mondragon.edu